

Atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldaren Estatistika
Nafarroa, 2023ko urtarrilaren 1a

Atzerrian bizi den eta Nafarroan inskribatuta dagoen Espainiako populazioa % 0,8 hazi da 2022. urtean

Argentina, Frantzia, Estatu Batuak eta Mexiko dira AEEen populazio kopuru handiena duten herrialdeak

2023ko martxoaren 16a

Inskribatuta dauden hamar pertsonatik seik 16 eta 64 urte bitartean dituzte
Atzerrian bizi diren 16 urtetik beherako bi pertsonatik bat European bizi da


BILAKAERA

Nafarroan inskribatuta dauden eta atzerrian bizi diren Espainiako nazionalitateko pertsonen kopurua 36.651 da, atzerrian bizi diren Espainiako pertsonen erroldaren (AEE) 2023ko urtarrilaren 1eko datuen arabera. Aurreko urtearen aldean, 286 pertsonako saldo positiboa dago, hots % 0,8 hazi da.



1. GRAFIKOA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioaren bilakaera (zifra absolutua eta urteko aldakuntza-tasa). 2013-2023 urteak.



Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.

KONTINENTEAREN ETA BIZILEKU-HERRIALDEAREN ARABERA

Kontinentearen arabera. Batez ere Amerikan (% 64,0) eta Europan (% 32,1) bizi dira; datu horiek aurreko urteetako datuen antzekoak dira. 2022an inskribatu ziren pertsonen kopuruak Europan izan du igoyerarik handiena (399 gehiago); Amerikak, berriz, behera egin du, aurreko urtearekin alderatuta (58 pertsona gutxiago). Ozeaniak, Afrikak eta Asiak erakusten duten urte arteko aldakuntza ez da oso aldakorra, eta dozenaka gutxi batzuk gutxiago dira.

1. TAULA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioa, bizileku-kontinentearen arabera. 2013-2023 urteak.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Kop.											
Guztira	23.747	25.862	27.961	30.057	31.560	32.902	33.752	34.957	35.366	36.365	36.651
Europa	5.906	6.346	6.888	7.460	8.114	8.794	9.370	10.151	10.601	11.376	11.775
Afrika	207	233	286	360	388	442	488	533	548	586	550
Amerika	17.033	18.624	20.090	21.476	22.261	22.834	23.084	23.431	23.352	23.518	23.460
Asia	328	373	404	452	479	500	468	489	501	506	486
Ozeania	273	286	293	309	318	332	342	353	364	379	380
%											
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
Europa	24,9	24,5	24,6	24,8	25,7	26,7	27,8	29,0	30,0	31,3	32,1
Afrika	0,9	0,9	1,0	1,2	1,2	1,3	1,4	1,5	1,5	1,6	1,5
Amerika	71,7	72,0	71,8	71,5	70,5	69,4	68,4	67,0	66,0	64,7	64,0
Asia	1,4	1,4	1,4	1,5	1,5	1,5	1,4	1,4	1,4	1,4	1,3
Ozeania	1,1	1,1	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0	1,0

Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

2. TAULA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioa, bizileku-kontinentearen arabera. 2022 eta 2023. urteak.

	2022	2023	Aldakuntza absolutua	Aldakuntza erlatiboa (%)
Europa	11.376	11.775	399	3,5
Afrika	586	550	-36	-6,1
Amerika	23.518	23.460	-58	-0,2
Asia	506	486	-20	-4,3
Ozeania	379	380	1	0,3
Guztira	36.365	36.651	286	0,8


Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.

Herrialdearen arabera. Nafarroako pertsona gehien bizi diren atzerriko herrialdeak Argentina, Frantzia, Estatu Batuak eta Mexiko dira.

Aurreko urtean, atzerrian bizi diren eta Nafarroan inskribatuta dauden pertsonen kopuruari dagokionez, Erresuma Batuek Ekuadorri aurrea hartu zioten, eta, aurten, alde handitu egin da, eta zerrendan bosgarren postuan dago. Gainera, Alemania Txiletik gero eta hurbilago dago, gora egiten jarraitzen baitu herrialde horretan bizi diren Nafarroako pertsonen kopuruak. Azkenik, azken urteotan 2. eta 3. grafikoetan ikusten den joerari jarraitzen zaio; izan ere, Nafarroan pertsona asko inskribatuta dituzten Amerikako herrialdeak baztertuak izaten ari dira Europako herrialdeen aldetik, ez baitira ari pertsona kopurua gehitzen edo galtzen ari baitira, besteak beste, Mexiko, Txile, Uruguai edo Venezuelaren kasuan, Erresuma Batuen, Alemaniaren edo Suitzaren aurrean.

2. GRAFIKOA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta Espainiako nazionalitatea duen populazioa, pertsona gehien inskribatuta dituzten herrialdeetan bizi direnak. 2013-2023 urteak.



Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

SEXUAREN, ADIN-TALDEEN ETA JAIOLEKUAREN ARABERA

Sexuaren arabera. % 50,3 emakumeak dira (18.434) eta gainerako % 49,7ak, gizonak (18.217).

Sexuaren eta kontinentearen arabera. Atzerrian bizi diren emakumeen inskripzio kopurua gizonena baino handiagoa da 217 kasutan. Hala ere, Afrikako, Asiako eta Ozeaniako kontinenteetan, emakume baino gizon gehiago daude inskribatuta.

3. TAULA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioa, sexuaren eta kontinentearen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean.

	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Aldea
Europa	111.775	5.791	5.984	-193
Afrika	550	298	252	46
Amerika	23.460	11.651	11.809	-158
Asia	486	284	202	82
Ozeania	380	193	187	6
Guztira	36.651	18.217	18.434	-217

Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.

Adin-taldearen arabera. AEEen inskribatuta dauden pertsonen % 60,2k 16 eta 64 urte bitartean dituzte, % 23,1ek 64 urte baino gehiago eta gainerako % 16,7k 16 urtetik behera dituzte. Oro har, atzerrian bizi den 16 eta 64 urte bitarteko populazioaren kopuruak gora egin du pixka bat, eta beste bi adin-taldeenak, berriz, pixka bat behera.

4. TAULA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioa, adin-taldearen arabera. 2013-2023 urteak.

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Guztira	23.747	25.862	27.961	30.057	31.560	32.902	33.752	34.957	35.366	36.365	36.651
Kop.											
16 urtetik behera	3.419	3.825	4.304	4.849	5.114	5.485	5.704	5.971	5.905	6.257	6.119
16 eta 64 urte artean	13.878	15.252	16.642	18.081	19.087	19.816	20.246	20.938	21.191	21.641	22.073
64 urtetik gora	6.450	6.785	7.015	7.127	7.359	7.601	7.802	8.048	8.270	8.467	8.459
%											
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0
16 urtetik behera	14,4	14,8	15,4	16,1	16,2	16,7	16,9	17,1	16,7	17,2	16,7
16 eta 64 urte artean	58,4	59,0	59,5	60,2	60,5	60,2	60,0	59,9	59,9	59,5	60,2
64 urtetik gora	27,2	26,2	25,1	23,7	23,3	23,1	23,1	23,0	23,4	23,3	23,1

Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.



Adin-taldean eta kontinentearen arabera. 16 urtetik beherakoen % 50,7 Europan bizi dira eta % 41,2 Amerikan. 16 eta 64 urte bitarteko adin-taldean, atzerrian bizi diren gehienak Amerikan bizi dira (% 64,0), baina kopuruak pixka bat behera egin du, aurreko urtearekin alderatuta, eta % 32,8 Europan. Eta, azkenik, 65 urtetik gorakoen % 80,6k Amerikan dute bizilekua, eta % 16,9k Europan.

5. TAULA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko populazioa, adin-taldearen eta kontinentearen arabera, 2023ko urtarrilaren 1ean.

	GUZTIRA		16 urtetik behera		16 eta 64 urte artean		64 urtetik gora	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
<i>Europa</i>	11.775	32,1	3.105	50,7	7.237	32,8	1.433	16,9
<i>Afrika</i>	550	1,5	331	5,4	188	0,9	31	0,4
<i>Amerika</i>	23.460	64,0	2.524	41,2	14.117	64,0	6.819	80,6
<i>Asia</i>	486	1,3	115	1,9	303	1,4	68	0,8
<i>Ozeania</i>	380	1,0	44	0,7	228	1,0	108	1,3
Guztira	36.651	100,0	6.119	100,0	22.073	100,0	8.459	100,0


Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.

Kontinenteetako populazioa, adin-taldean arabera, aldatu egin da urteetan zehar; hala ere, adin-talde guztiek erakusten dute Amerika nagusi dela bizileku-kontinente gisa, 16 urtetik beherakoenak izan ezik, eta hura da bizileku-kontinente nagusia, talde bakoitzean inskribatutakoen erdia baino gehiago baititu. Ondoren, Europa dator, eta, ondoren, gainerako kontinenteak, eta batura osoa ehuneko bost baino gutxiago da. Salbuespen gisa, 16 urtetik beherako pertsonak ditugu, azken urteetan proportzioa aldatu egin baita, eta berdindu egin da Europan eta Amerikan inskribatu direnen portzentajea eta gainditu ere gainditu da Europan bizi direnen kopurua, Amerikarekin alderatuta (2020. urtea). Azken joera horri eutsi egiten zaio, eta aurten handitu egin da Europak Amerikako kontinentearen aldean duen desberdintasuna, eta atzerrian bizi den 16 urtetik beherako populazioaren % 50,7 da.



3. GRAFIKOA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den Espainiako nazionalitateko 16 urtetik beherako populazioa, bizileku-kontinentearen arabera. 2013-2023 urteak.




Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.

Jaioterriaren arabera. Atzerrian bizi diren eta Nafarroan inskribatuta dauden espainiarren % 72,0k atzerrian jaio ziren (aurreko urtean baino 0,7 puntu gehiago), % 24,1 Nafarroan jaio ziren (aurreko urtean baino 0,7 puntu gutxiago), % 3,6 beste autonomia-erkidego batean (aurre urtearen antzera) eta gainerako % 0,2ari buruz ez dago halako informaziorik. 2011. urteaz geroztik, gora egiten ari da atzerrian jaiotako pertsonen pisua, Nafarroan jaiotakoaren aldean.

4. GRAFIKOA

Nafarroan inskribatuta dagoen eta atzerrian bizi den populazio espainiarra, jaioterriaren arabera. 2013-2023 urteak.



Iturria: Nastat, atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldako (EIN) datuetan oinarrituta.





OHAR METODOLOGIKOA

Atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldaren Estatistika Atzerrian bizi diren Espainiarren Erroldaren (AEE) fitxategiaren ustiapen estatistikotik ateratzen da. Fitxategi horrek Espainiako nazionalitatea duten eta Espainiatik kanpo bizi diren pertsonen inskripzioak jasotzen ditu, hura nazionalitate bakarra izan ala ez.

AEE eratzen da Karrera Bulego Kontsularreko edo Misio Diplomatikoen Kontsulatuko Ataleko Matrikula Erregistroan dauden datuekin.

Errolda honetan inskribatutako pertsonak Nafarroako Foru Komunitateko udalerrietako bizilaguntzat hartuko dira hauteskunderi dagokienez, eta ez dira inola ere udalerriko biztanle izango.

AEEren estatistika-ustiapenak atzerrian bizi ohi den Espainiako nazionalitateko populazioaren zenbaketa ematen du, urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean, honako sailkapen-aldagai hauen arabera: bizileku-herrialdea, sexua, adina, jaioterria eta Espainian inskribatuta dagoen udalerrria, hauteskundeetarako.



INFORMAZIO GEHIAGO:

Nastat

Atzerrian bizi diren Espainiako Pertsonen Erroldaren Estatistika. 2023. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

